



*Castildetierra
Errege-Bardeen Parke Naturala
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

H_{LH4}

2022-2023

Zuzenketa-koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

**Euskal
Hizkuntza
Gaitasuna**

LHko 4. maila



Jarraibideak

Hiru zati dituen proba egingo duzu:

1. zatia - Entzunaren ulermena

“Asierren *bidai*a” izeneko testua **hiru aldiz** entzungo duzu eta entzundakoari buruzko galderari erantzun beharko diezu. Horrela egingo duzu:

- Lehenik, galderak irakurtzeko **bi minutu** izango dituzu.
- Ondoren, hiru aldiz jarraian entzungo dugu. Errepikapen bakoitzaren ondoren, minutu bateko isilunea izango duzu galderak berriro irakurtzeko, erantzunak berrikusteko...
- Hirugarren aldiz entzundakoan, galderari erantzun badiezu, irakurriaren ulermena egiten has zaitezke.

2. zatia - Irakurriaren ulermena

Zati honetan **bi testu** irakurriko dituzu:

- *Lehenengo artistak.*
- *Hiru herriko bertso eskola.*

Irakurritakoari buruzko galderari erantzun beharko diezu. Hainbat galdera mota topatuko dituzu:

- Aukera anitzeko galderak: **hautatu zuzena** eta **borobildu** alboko hizkia. Adibidea:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Hainbat milioi.

Erantzuna aldatu nahi baduzu, gurutzatu **erantzuna X** jarritz eta **borobildu** erantzun zuzena:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Hainbat milioi.

- Egia (E) ala gezurra(G) motakoak.
- Ideiak erlazionatzekoak.
- Puntuekin adierazitako espazioan erantzun beharrekoak:

Zein da Nafarroako hiriburua?.....

3. zatia - Idazmena

Testu bat idatzi behar duzu zure herria edo auzoa deskribatzeko:

- Idazten hasi aurretik, hainbat galdera topatuko dituzu; ez dituzu erantzun behar, ideiak emateko baino ez dira.
- Zirriborrea egitea **derrigorrezkoa** da horretarako utzitako espazioan.
- Behin betiko testua puntu-lerroetan idatzi behar duzu; ez da ezinbestekoa guztiak erabiltzea.



Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.

1. zatia - Entzumena

Transkripzioa: URTE ETA ERDI ASIAN BARRENA

ESATARIA: Mutil hau, entzule estimatuok, Asian barrena ibili da 19 hilabetez.

ELKARRIZKETATUA: Bai, hemeretzi... hemezortzi hilabete izan dira guztira. Eee...ta zeharkatu ditut hogeita hamalau herri.

ESATARIA: Hogeita hamalau. Herrialdeen kolezionista bat zarela esango du entzuleren batek.

ELKARRIZKETATUA: Bueno ez naiz horrelakoa, ez. Niri gustatzen zaidana da, bestelako kulturak ezagutzea eta ez bakarrik herriak kontatzea.

ESATARIA: Bilboko Atxuriko geltokitik abiatu zinen, eta nola mugitu zara batetik bestera?

ELKARRIZKETATUA: Ba... erabili ditut hogeita bost ibilgailu ezberdin.

ESATARIA (2): Hogeita bost?

ELKARRIZKETATUA: Bai, bai. Zenbatu nituen eta guztira hogeita bost izan dira. Izan dira trenaz eta autobusaz aparte, motorra, bizikleta, zaldia, kamelua, ...

ESATARIA: Elefantea?

ELKARRIZKETATUA: Elefantea, ez dut erabili (kar-kar).

ESATARIA: Baina probatuko zenuen igual, zeren Asian tokiren batean...

ELKARRIZKETATUA: Bai, ikusi nituen, baina... eta kontua da... bidaia hasi baino lehen, lehenengo helburua zen bidaia hau hegaldirik hartu gabe egitea. Eta azkenean ezin izan da, baina bai Bilbotik Vladivostok-eraino, Errusiako Pazifikoko kostaldean, ba... haraino trenez joan nintzen Bilbotik, Atxuri geltokitik abiatuta, guztiz trenez.

ESATARIA: Guztiz trenez eta bakarrik.

ELKARRIZKETATUA: Bakarrik bai, bakarrik bidaiatu dut.

ESATARIA: Eta lagunak egin dituzu, orain lagun kolezio bat izango duzu, lagun bilduma izango duzu?

ELKARRIZKETATUA: Lagun, asko, asko. Bakarrik bidaiatzen duzunean errazagoa da lagunak egitea.

ESATARIA (2): Asier, zuk hala ere, Bilbon lana zenuen. Urte dezente zeneramatzan enpresa batean lanean. Eta nolatan esan zenuen, zergatik esan zenuen "dena utzi eta banao"?

ELKARRIZKETATUA: Bueno, ez zen egun batetik besterako erabakia izan. Proiektu honen egitasmoa baneukan orain dela zazpi urtetatik hona edo. Eta, bueno... horren helburua buruan neukala ba... aurreztu nuen dirua lau urtez enpresa berebean lan eginez. Eta gero ba...utzi nuen eta hara joan nintzen.

ESATARIA: Ederki ba, Asier Gabikajogeaskoa eskerrik asko gurekin izateagatik.

ELKARRIZKETATUA: Ba, zuei.

ESATARIA: Eta izango dugu elkarren berri. Ondo-ondo segi.

ELKARRIZKETATUA: Zergatik ez? Benga.

Asier Gabikagogeaskoak egindako bidaia entzungo duzu. Ondoren, erantzun galderei.

1. Entzumen honen hasieran, “Entzule estimatuok” esaten dute. Zergatik? Esan egia (E) edo gezurra (G) diren hurrengo esaldiak.

	E	G
A. Irrati saio batean daudelako.	X	
B. Entzule guztiak oso jatorrak direlako.		X
C. Entzuleen autoestimua igotzeko.		X
D. Irrati saio baten hasieran, entzuleak agurtzeko modu bat delako.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzunak zuzenak: E-G-G-E .

1. galderaren analisia	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

2. Non ibili da Asier bidaian?

- A. Europako herrialde batean barna ibili da.
- B. Asian zehar ibili da.
- C. Basamortu batean barna ibili da.
- D. Australian barna ibili da.

2. galderaren analisia	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

3. Zenbat iraun du bere bidaiak?

- A. 18 hilabete.
- B. 19 hilabete.
- C. 28 hilabete.
- D. 34 hilabete.

3. galderaren analisia	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

4. Zenbat herritan ibili da?

- A. 18 herritan.
- B. 24 herritan.
- C. 34 herritan.
- D. 15 herritan.

4. galderaren analisia	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

5. Zer gustatzen zaio Asierri?

- A. Herriak kolekzionatzea.
- B. Kultura desberdinak ezagutzea.
- C. Kulturak kolekzionatzea.
- D. Bidaiak kolekzionatzea.

5. galderaren analisia	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

6. Nondik hasi zuen Asierrek bere bidaiak?

- A. Bilboko aireportutik.
- B. Bilboko autobus geltokitik.
- C. Bilboko erdiguneko kaletik.
- D. **Bilboko Atxuriko tren geltokitik.**

6. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Entzumena, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

7. Zein animalia ikusi ditu bidaiak zehar?

- A. Gamelua eta zaldia bakarrik.
- B. **Zaldia, elefantea eta gamelua.**
- C. Zaldia eta elefantea.
- D. Zaldia, elefantea eta tigrea.

7. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Entzumena, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

8. Bilbotik nora abiatu zen?

- A. Ozeano Pazifikora.
- B. Errusia erdialdera.
- C. Asiako Vladivostokiera.
- D. **Errusiako Pazifikoko kostaldera.**

8. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Entzumena, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

9. Markatu egia (E) edo gezurra (G) diren hurrengo esaldiak. Entzun duzuna:

	E	G
A. Mutil baten laneko esperientzia bat da.		X
B. Irrati batean neska bati egindako elkarrizketa da.		X
C. Hegaldirik ez egiteko intentzioa zuen mutil baten esperientzia da.	X	
D. Irrati saio batean bidaiari bati egindako elkarrizketa bat da.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzunak zuzenak: G-G-E-E .

9. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Entzumena, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

2. zatia - Irakurmena

LEHENENGO TESTUA

LEHENENGO ARTISTAK

HARRI AROKO
ESKULTURA ETA PINTURA

HAUR BATI PAPER ZATI BAT eta arkatz bat ematen badizkiogu, segur aski marrazki bat egingo du. Gizakiak ere marrazkiak egin zituen irakurtzen eta idazten ikasi aurretik, idazkera asmatu baino milaka urte lehenago.

Aurkitu diren artelanik zaharrenak gizakien edo animalien irudiak dituzten egurrezko eta harrizko taila txikiak dira. Batzuetan, emakume gizenen irudiak azaltzen dira, 11 eta 15 zentimetro bitarteko altuerakoak. Oso gastatuta daudenez, asko eskukatu eta garraiatu direla dirudi. Eskultura txiki hauei Venus deitzen zaie, Maitasunaren jainkosa erromatarrari bezala, eta antzinako gizakiek uste zuten irudi hauek amatasuna errazteko balio zutela. Zenbat eta haur gehiago izan amak, orduan eta indartsuagoa tribua.




3,8 zm-ko altuerako buru hau izan daiteke giza erretraturik zaharrena. Duela 20 000 urte tailatutako marfilezko figura hau Brassempouy-n (Frantzia) aurkitu zuten.



Zientzialariek edozein objekturen antzintasuna kalkula dezakete, hau da, noizkoa den baldin eta objektu hori noizbait bizirik egon zen materialez eginga badago. Ezkerreko zalditxo tailatu hau Vogelherd-en (Alemania) aurkitu zuten. Mamut baten letaginen marfilaz eginda dagoenez, badakigu zein adin duen: 30 000 urte inguru. Datatutako artelanik zaharrena da.





LASCAUX-EKO LABAR PINTURAK*

1940an lau mutikok zulo bat aurkitu zuten Frantziako Lascaux inguruan. Linternaren laguntzaz konturatu ziren hormak animalia marrazkiez estalita zeudela. Lurpeko arte galeria hau Europa-ko altxorrik preziatuenetakoa da gaur egun.

Ezagutzen ditugun labar pinturarik zaharrenak kobazuloetan bizi ziren ehiztariek egin zituzten duela 20 000 urte inguru. Pinu adarrei su emanda lortzen zuten beharrezko argitasuna, eta haitz edota landareen hautsekin lortutako koloreak erabiltzen zituzten. Gaur egungo edozein pintore bezain trebeak ziren. Inork ezin zituen marrazki haiek ikusi, baina, hala ere, denbora asko pasatzen zuten margotzen. Inork ez daki



zergatik. Pintura gehienak animalia belarjale handiak tartean zituzten ehizaren inguruko irudiak ziren eta horregatik uste da agian ehiztarien zortearen truke jainkoei eskainitako ofrendan izan zitezkeela.

LEHENENGO MUSIKARIA

Musika oso zaharra da. Agian tailak eta pinturak baino zaharragoa. Afrikako iparraldean aurkitu zen txilibitu hau lehenengo tailak baino milaka urte zaharragoa da. Baina, segur aski, lehenengo musika tresnak perkusiozkoak izan ziren -danborrak eta karrakak-dantzarako ere erabiltzeko modukoak. Oraindik ere jotzen dira oso zaharrak diren musika tresna batzuk, zuloak dituen Australiako aborigenen hodi luze eta huts hau -argazkian ikusten dena- kasu.



*labar pinturak: historiaurreko kobazuloko paretetan agertutako pinturak eta grabatuak dira.

10. Testu hau:

- A. iragarkia da.
- B. ipuin bat da.
- C. azalpen testua da.
- D. deskribapen testua da.

10. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea: ulermen globala.
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

11. Zein garaiz hitz egiten du testuak?

- A. Erdi Aroaz.
- B. Harri Aroaz.
- C. Aro Garaikideaz.
- D. Paleolitoaz.

11. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

12. Zein da testuan aipatzen diren artelanen artean zaharrena?

- A. Alemanian topatutako zalditxoa.
- B. Marfilez egindako lehendabiziko giza erretratua.
- C. Labar pinturak.
- D. Maitasunaren jainkosaren figurak.

12. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

13. Lotu esaldiak gezien bidez egia izan daitezen. Osatu taula.

1. Lau mutikok....	A. ehiztariek egin zituzten orain dela 20.000 urte inguru.
2. Labar pinturak...	B. edozein objektuaren antzintasuna kalkula dezakete.
3. Koloreak...	C. haitz edo landareen hautsekin lortzen zituzten.
4. Zientzialariek...	D. Lascauxeko labar pinturak topatu zituzten 1940an.

1	D
2	A
3	C
4	B

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzunak zuzenak: 1D - 2A - 3C - 4B.

13. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

14. Zer materialez egin dago aurkitutako zalditxoa?

- A. Egurrez.
- B. Txori baten hezurrez.
- C. Mamut baten letaginez.
- D. Harriz.

14. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

15. Nola lortzen zuten argitasuna kobazuloetan margotzeko?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Pinu adarrei su emanda” / “Sua eginez” , edo antzeko azalpena.

15. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

16. Hiru toki hauetan aurkikuntza garrantzitsuak egin dira. Zein herrialdetan daude kokatuta hiru toki hauek?

- A. Brassempouy: _____
 B. Lascaux: _____
 C. Vogelherd: _____



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 edo erantzun zuzen 1.
0,5	2 erantzun zuzen.
1	3 erantzunak zuzenak: A. “Frantzian”. B. “Frantzian”. C. “Alemanian”.

16. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

17. Testu honen helburua...

- A. antzinako artelanen publizitatea egitea da.
- B. irakurleak Harri Aroko artelanei buruzko informazioa jasotzea da.
- C. irakurleek kobazuloak zaintzeak zer garrantzi duen ikustea da.
- D. lehen gizakientzat ehiza ze garrantzitsua izan zen guri ikusaraztea.

17. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Jarraitua, azalpena.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea: ulermen globala.</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

Lehenengo testuko galderen amaiera

BIGARREN TESTUA



NAFARROAKO
BERTSO ESKOLAK

EMAN IZENA!
URTARRILAREN 10etik 28ra

(ATARRABIA | BURLATA | UHARTE)

HIRU HERRIKO
BERTSO
ESKOLA

ASTELEHENAK, 16:00-17:00

LH6 mailako ikasleentzat

Irakaslea: Xabier Terreros

Tokia: Atarrabian, lekua zehazteke

IZEN EMATEA ETA ORDAINKETA

Informazioa eta izen ematea, urtarrilak 28 bitarte: www.bertsozale.eus/nafarroa

Kuota: 40€

Eskolak otsailaren 7an abiatuko dira, maiatza bukaera bitarte.


Kontaktua: 948143747 edo nafarroa@bertsozale.eus


**Izen ematearekin,
kamiseta bat opari!**

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

 ATARRABIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILAVA

 Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



18. Bete ezazu hurrengo esaldia beheko aukeren artean egokia aukeratuz. Testu hau da.

- A. iragarki bat
- B. kanta bat
- C. bertso bat
- D. marrazki bat

18. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea / Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

19. Zein da testuaren helburua?

- A. Udal kanpaldi baten informazioa eskaintzea.
- B. Kirol kamiseta baten inguruko informazioa ematea.
- C. Nafarroako bertsozale elkarteak antolatzen duen ekimen baten berri ematea.
- D. Irakasleentzako bertso eskola baten informazioa ematea.

19. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea: ulermen globala.</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

20. Zein hiru herrik parte hartzen dute bertso eskola honetan?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Atarrabiak, Burlatak eta Uhartek parte hartzen dute”, edo antzeko azalpena.

20. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

21. Esan egia (E) edo gezurra (G) diren hurrengo baieztapenak.

	E	G
A. Izena ematearekin batera kamiseta bat erosteko aukera izango duzu.		X
B. Bertso eskolaren kontaktu bat honako helbidea da: nafarroa@bertsozale.eus	X	
C. 6. mailako ikasleei zuzenduta dago bertso eskola.	X	
D. Eskolak Atarrabiako Udaletxeko Plazan egingo dira 16:00etatik 17:00ak arte.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzunak zuzenak: G-E-E-G.

21. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea.</i>
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

22. Bertso eskolan izena emateko informazioa nahi baduzu, hurrengo aukeretatik, zein da egin ahal duzuna?

- A. 94814004 telefono zenbakira deitzea.
- B. www.bertsozale.eus/nafarroa orrialdean sartzea.
- C. Zure eskolako irakasleei galdetzea.
- D. Xabier Terreros irakaslearekin hitz egitea.

22. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

23. Osatu honako esaldi hauek testuko informazioarekin:

A. Izena emateko epea _____ - ean hasten da.

B. Eskolak amaitzen diren hilabetea _____ da.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
1	1 erantzun zuzen.
2	2 erantzunak zuzenak: A. "Urtarrilaren 10". B. "Maiatza".

23. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

24. Testuan aurkitzen dugu Hiru Herriko Bertso Eskola, astelehenetan Atarrabian izango dela, baina lekua "zehazteke". Zer esan nahi du horrek?

A. **Atarrabian izango direla baina lekua oraindik ez dagoela erabakita.**

B. "Zehazteke" izeneko kalean izango dela.

C. Atarrabiako ikasleek zehaztuko dutela.

D. Bertso eskola lekuz aldatzen joango dela.

24. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

25. Nortzuk dira Nafarroako bertso eskolako ekimen honen antolatzaileen laguntzaileak?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“ Atarrabiako Udala eta Nafarroako Gobernu ”, edo antzeko azalpena.

25. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

26. Nork antolatu du ikastaroa?

- A. Nafarroako bertso eskolak.
- B. Atarrabiako udalak.
- C. Nafarroako Gobernuak.
- D. **Nafarroako bertsozale elkarteak.**

26. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

27. Zergatik oparitu nahi dute kamiseta bat?

- A. Ikastarora eramateko.
- B. Dotore janzteko.
- C. Bertsolaria sentitzeko.
- D. **Jendea animatzeko.**

27. galderaren analisisa	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

28. Kartelean eta kamisetan ikus daitekeen irudia, zer da?

- A. Logo bat.
- B. Marrazki bat.
- C. Zirriborro bat.
- D. Bozeto bat.

28. galderaren analisisa	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzio-argudioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

Bigarren testuko galderen amaiera

3. zatia - Idazmena

29. Asierrek irratian egindako elkarrizketan toki ezberdinak ezagutzeaz hitz egiten da. Elkarrizketa klasean entzun ondoren, irakasleak zuen herria edo auzoa deskribatzeko eskatzen dizue.

Laguntzeko galderak:

- Nola du izena herriak/auzoak?
- Non dago kokatuta?
- Nola irits daiteke haraino?
- Zer dago herrian / auzoan? (Eraikinak, zerbitzuak, dendak...).
- Zer dago inguruan: mendiak, ibaiak, landa eremua...?
- Nolakoa da giroa: lasaia, bizia, zaratatsua...?
- Zer egin daiteke bertan?

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.



1. paragrafo	
2. paragrafo	
3. paragrafo	

***Irakasle zuzentzaileak erabili eta bete beharreko
puntuazio-taula***

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	
Txukuntasuna eta ortografia	
Istorioaren koherentzia eta egokitzapena	
Kohesioa	
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegi-aberastasuna	
29. itema – Osotara:	/13

Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Atal bakoitzean maila horretan egoteak zer dakarren deskribatzen da eta maila guztietan beti berberak diren irizpideak zehaztu dira.

	0 atala (0 puntu)	1 atala (1 puntu)	2 atala (2 puntu)	3 atala (3 puntu)
Plan gintza	Zirriborroa egin du.	Ez du zirriborrorik egin. ¹		
Aurkezpena eta ortografia	<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p><u>Aurkezpena:</u> Letra ez da argia eta marjinak eta paragrafoak ez daude zehaztuta.</p> <p><u>Ortografia:</u> akats asko egin ditu; (ez ditu hitzak banatzen; letra larriak ez ditu erabiltzen edo gaizki erabiltzen ditu; <i>h, ts, tx</i> eta <i>tz</i> gaizki erabiltzen ditu).</p> <p>Zirrimarra asko dago, ez dago marjinarik, letra irakurtezina da.</p>	<p>LHko 4.eko maila ez du oraindik bereganatu, baina bidean da.</p> <p><u>Aurkezpena:</u> letra ez da ona, zirrimarra dezente dago.</p> <p><u>Ortografia:</u> 5-10 akats Letra larriak, <i>h, ts, tx</i> eta <i>tz</i> gaizki erabiltzen ditu batzuetan eta hitzak ere ez ditu beti ongi banatzen.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <p><u>Aurkezpena:</u> Oro har, testua txukun idatzita dago: irakurterraza; marjinak ongi zehazturik daude.</p> <p><u>Ortografia:</u> testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez; (<i>tz/ts/tx/z/s/x</i>) gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira; zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</p> <p>Akatsen bat gorabehera, letra larriak zuzen erabili ditu eta hitzak ondo banatu ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p><u>Aurkezpena:</u> txukun idatzita dago: ez dago zirrimarrarik, letra argia eta irakurterraza. Marjinak ongi zehazturik daude.</p> <p><u>Ortografia:</u> oso akats gutxi egin ditu (hitzak ongi banatzen ditu; oinarriko hiztegia ondo idazten du; letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu; <i>h, ts, tx, tz</i> ongi erabiltzen ditu).</p>
koherentzia eta egokitasuna	<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p><u>Egokitasuna:</u> Ez du zeregina bete (luzera, xedea, ikuspegia).</p> <p>Ahokotasunaren berezko hizkuntza erabili du, hizkera idatzian berezkoa den kodetik urrunduz.</p> <p><u>Egitura:</u> ez da argia, testuak ez du zentzu globalik, kontraesanak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude eta beharrezkoa den informazioa falta da.</p>	<p>Oraindik ez da nahikoa LHko 4. mailarako. Ez da erabat koherentea, baina agindutako zeregina betetzen saiatu da.</p> <p><u>Egokitasuna:</u> ataza ulertu du, baina laburregia da. Eskatutako elementu asko falta dira...</p> <p>Hizkera idatzian berezkoa den kodea erabili badu ere, batzuetan erregistroa ez da erabat egokia.</p> <p><u>Egitura:</u> ez da inkoherentea, baina egitura ez da behar bezain argia. Batzuetan justifikatu gabeko hutsuneak daude edo gai beraren gainean aritzen da, kontraesanak daude.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. erako, maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <p><u>Egokitasuna:</u> agindutako zeregina bete du, nahiz eta punturen batean huts egin.</p> <p>Deskribapenean herriari buruzko eskatutako informazio guztia agertzen da; testu motaren atalak ondo bete ditu.</p> <p>Erregistro egokia erabili du.</p> <p><u>Egitura argia</u> eta <u>bilakaera tematikoa:</u> ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere. Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da. Akatsen bat gorabehera, informazioa ondo ulertzen da.</p>	<p>LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p><u>Egokitasuna:</u> agindutako zeregina bete du.</p> <p>Deskribapenean herriari buruzko informazio guztia ematen da eta informazioa sakonduz, gainera.</p> <p>Erregistro egokia erabili du.</p> <p><u>Egitura:</u> barne egitura argia da, gaiaren progresioa ere ona da, errepikapen eta jauzirik gabe. Hartzaileari mezua argi geratu zaio.</p>

¹ Idatzizko adierazpenaren kalitateari begira, funtsezkoa da ideiak planifikatzeko edo antolatzeko prozeduraren bat erabiltzea. Garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigu ikasleek prozedura hauek erabiltzea sustatzea eta ikasleei prozesu horretan alde aurretik ezarritako formatu bat emanez laguntzea, edukia ebaluatzea baino. "Zirriborroa" deitu diogu, ikasgeletan erabiltzen den termino bat dela uste dugulako.

<p style="text-align: center;">Kohesioa</p>	<p>Ez dago erreferenteari eusteko eta ideiak konektatzeko mekanismorik. Hona hemen arazo horietako asko:</p> <p><u>Erreferentea:</u> ez dago argi zertaz ari den. Errepikapen gehiegi.</p> <p><u>Perpausak:</u> esaldi osatugabeak.</p> <p><u>Lotura:</u> ez du konektorerik erabili.</p> <p><u>Puntuazioa:</u> gaizki erabili ditu puntuak, ez dago paragraforik.</p>	<p>Erreferenteari eusteko eta lotzeko mekanismo gutxi daude.</p> <p><u>Erreferentea:</u> batzuetan galdu egin du. Behar ez diren errepikapenak daude.</p> <p><u>Perpausak:</u> ez du mendeko perpaus bakar bat ere erabili.</p> <p><u>Lotura:</u> beharrezkoak izanik ere, ez du konektorerik erabili edo gaizki erabili ditu.</p> <p><u>Puntuazioa:</u> puntuak erabili baditu ere, ez du komarik erabili edo gaizki erabili ditu. Ez dago paragraforik edo gaizki banatuta daude.</p>	<p>Orokorrean testua kohesionatua dago, baina oraindik akatsen bat antzeman daiteke.</p> <p><u>Erreferenteari eutsi dio.</u> Orokorrean ez dago alferrikako errepikapenik.</p> <p><u>Perpausak:</u> perpausak ideia osoak adierazten dituzte. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</p> <p><u>Lotura:</u> paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa...).</p> <p><u>Puntuazioa:</u> puntuak ongi erabili ditu eta koma batzuk ere baliatu ditu; gutxienez hiru paragrafotan banatu du testua. Harridura ikurrak, galdera ikurrak eta gidoiak, oro har, zuzen erabili ditu.</p>	<p>LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p><u>Erreferenteari eutsi dio:</u> Argi dago zertaz diharduen. Sinonimoak, izenordainak eta substantibazioa erabili ditu.</p> <p><u>Perpausak:</u> ideia osoak adierazi ditu, perpausak ez dira oso luzeak eta egiturak zuzenak dira. Mendeko perpausak ere erabili ditu.</p> <p><u>Lotura:</u> antolatzaile eta lokailu asko erabili ditu edo modu zehatzean baliatu ditu.</p> <p><u>Puntuazioa:</u> puntuak eta komak ongi erabili ditu. Harridura, galdera ikurrak eta gidoiak zuzen erabili ditu. Paragrafoak ondo bereizi ditu.</p>
<p style="text-align: center;">Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna</p>	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p><u>Zuzentasuna:</u> Komunikazioa eragozten duen gramatika akats dezente egin ditu.</p> <p>-Komunztadura akatsak (ergatiboa, pluralgilea, deklinabidea...).</p> <p>- Aditz-formak ez dira egokiak.</p> <p>-Esaldi batzuk bukatu gabe daude.</p> <p>- Esaldi batzuk luzeegiak dira.</p> <p>-Galdegaia gaizki erabili du.</p> <p><u>Hiztegiaren aberastasuna:</u></p> <p>-Makulu-hitz asko erabili ditu: "gauza, egin, pasa, zera..."</p> <p>-Erdarakadak erabili ditu.</p> <p>-Arrunkeriak baliatu ditu.</p>	<p>Gaitasuna eskuratzeko bidean, baina oinarritzko egitura gramatikaletan hutsune asko dago.</p> <p><u>Zuzentasuna:</u> mezua ulertzen da, baina behin eta berriz errepikatzen diren akatsak daude (aditza, deklinabidea, komunztadura, galdegaia, esaldiak bukatu gabe...)</p> <p><u>Hiztegiaren aberastasuna:</u> Hiztegia oso oinarritzkoa da eta erdarakadaren bat edo beste du, gainera.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <p><u>Zuzentasuna:</u></p> <p><u>Aditzak:</u> oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua).</p> <p><u>Komunztadura</u> akats batzuk bakarrik egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...).</p> <p><u>Deklinabidea:</u> kasu markak ongi erabili ditu, oro har.</p> <p>-Galdegaia ondo azaldu du.</p> <p>-Esaldiak beti bukatzen ditu.</p> <p>-Ez du esaldi luzeegirik erabili.</p> <p><u>Hiztegiaren aberastasuna:</u></p> <p>-Lexiko egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...).</p> <p>-Hiztegi anitza erabili du.</p> <p>-Garrantzi handirik gabeko erdarakadaren bat dago.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p><u>Zuzentasuna:</u> Ez du gramatika akatsik egin, eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait perpaus mota erabili ditu.</p> <p><u>Hiztegiaren aberastasuna:</u> Lexiko aberatsa baliatu du, mezua aberasten eta zehazten duten zenbait adberbio eta adjektibo erabili ditu.</p> <p>-Ez du erdarakadarik erabil</p>

Zuzenketa-irizpideak argitzeko, Ebaluazio Atalera jo daiteke. “Sanz, A. (2009). *Testu idatziak zuzentzeko orientabideak. Ebaluazio diagnostikoa. Lehen Hezkuntza*. Hezkuntza Ikuskaritzako koadernoak 8. zenbakia. Nafarroako Gobernua.” hartu da erreferentzia gisa. Bertan azalpen osagarriak aurki daitezke, irakaskuntzan oro har jarduteko ere baliagarriak, baita zuzenketen adibideak ere. Esteka honetan deskarga daiteke:

https://www.educacion.navarra.es/eu/web/publicaciones/ultimas-publicaciones/-/asset_publisher/JONi5m8mCym2/content/orientaciones-para-la-correccion-de-textos-escritos-evaluacion-diagnostica-educacion-primaria

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste **batzuetan**, ordea, ez da horren agerikoa, eta **malgutasunez baloratu** behar da nahitaez.

***Oharra**

Pilotaje-prozesuak behaketa komun bat eman die ikasle guztiei. Topatuko dituzuen ikasleek egindako testuetan, euren herria deskribatzen zuen gutun bat idaztea eskatu zitzaizen. Lana errazte aldera, benetako proban euren herriko deskribapena bakarrik egiteko eskatzen zaie, gutuna izan gabe.

Horregatik, adibide gisa erantsitako ebaluazioak puntuatzeko orduan, proba pilotuko gutunak hartu dira kontuan; eta zuzenketak hala bailiran egin dira. Kontuan hartu beharrekoa, bertan jarritako testu-zuzenketak kontsultatzerakoan.

Benetako proban ikasleek deskribapen testu bat egin behar dute, eta deskribapen testu bat zuzendu behar zaie.

1. adibidea

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	Kaixo, Asien gomendatzen dizut ^{Lekuaz} Citauskita joan. Citauskita in ahol dituzte egin gauza asko adibidez.
2. paragrafo	Jolastu, joan menditara, joan ^{Zer Egin, non/} ibaiara, etb. Fagarran kokatuta dago.
3. paragrafo	^{Ez dago} Trentoia, Ludo teka, Taberna

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Kaixo, Asier:

Nik leitzen daiz gomen datzen
dizut Lizaru Kiara joan oso polita da, eta abel-
duzu egintza arko adibidez:

- Jolastu, joan mendira, joan ibaiara,
Lizaru Kiara ~~magarri~~ dago orain eta
mendira ~~oso~~ oso polita da jira.



Lizaru Kiara Erentain, luletika, taberna eta
gaur arko jorde. Aseguratsen dizut ondo
pasatuko duzula. Agur

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	1
Istoriaren koherentzia eta egokitasuna	1
Kohesioa	1
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	1

29. itema – Guztira

5/13

Parte	1. adibidea	0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza. (0 edo 1)	Zirriborroa bete du eta ideiak gutxi gorabehera antolatu ditu.	1
Txukuntasuna eta ortografia	<ul style="list-style-type: none"> - Txukuntasuna: pare bat zirrimarra egin ditu. - Letra: letra nahiko garbia da eta hitzen banaketak nahiko ongi egin ditu. - Marjinak: marjinak ongi zehaztuta daude, bigarren paragrafoaren hasieran marratxo soberan dago. - Ortografia: 3 akats ortografiko daude, baina testua motza da. 	1
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> - Egitura: paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak banatu ditu, baina ideia bat bi paragrafotan garatzen du. - Egokitasuna: ez ditu eskatzen zaizkion ideia guztiak garatzen, informazioa falta da. Ideiak ez ditu ordenan ematen, Ziraukiren kokapena bigarren paragrafoan egiten du. - Erregistroa: nahiko zuzena. 	1
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferenteari eusten dio: Ez du erakusten. Zirauki herriarentzako ez du erreferenterik erabiltzen. - Paragrafo kopurua/ perpausak Paragrafo banaketa bai, baina perpaus sinpleak. - Komunztadura: Testu sinpleegia, eta ez dago komunztadura egiteko aukera handirik ere; baina ongi dago. - Puntuazioa: Ez daki puntuazioa zuzen erabiltzen. - Lotura: Esaldi sinpleen erabilera, beraz joskeraren erabilera zuzena ikusteko ez dago gauza handirik. Ez dago antolatzailek. 	1
Gramatika zuzentasuna eta hiztegi aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Aditzak: Pobrea - Deklinabidea: Pobrea - Hiztegi aberastasuna: Pobrea - Egituren aberastasuna: Ez. Ergatiboa, hitzen ordena, ... ez da zuzena. Menpeko perpausik ez. 	1
Guztira:		5 /13

2.adibidea

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	<ul style="list-style-type: none">-Mañeru deitzen da nire herria-Mañeru hagarroak dago.
2. paragrafo	<ul style="list-style-type: none">-mendiak, landaremuak daude mañerun-kotxes Joan aitekete mañerura
3. paragrafo	<ul style="list-style-type: none">-Lasaia, baina defektan bizi eta batzutan zarabatzua-Parkerak Joan, Paseo bat ematera Joan pote bat artzera.

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Kaixo, Asier:

Nire herria mañeru du izena. Mañerun gutxi gora behera, 400 pertsona daude. Baiha, turista asko etortzen dira udan eta neguan. Mañerun hainbat dago eta niretzat oso polita da. Mañerun mendia asko daude adibidez "Sata Barbarai" eta ere bai daude landa nemu asko adibidez nire aitaharen "Saebacea" Mañerura kotxes Joan ar da edo depende nondik ibiltzen. Mañeru oso erria de laiaia, da baina gutxi eta edo esun espezialak. Zanda asko dago baiha ateburuetan bizia da gutxiak beti daudelako hainka eta ere bai nire etxea herriaren erdian du gurekako. Baina bueno Asier hain izan da dena mañerutik. Agur. Espera dut etortzea mañerura oso ondo pasatko dusa.

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	1
Istoriaren koherentzia eta egokitasuna	2
Kohesioa	1
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2

29. itema – Guztira

7/13

Parte	2. adibidea	0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza. (0 edo 1)	Zirriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu	1
Txukuntasuna eta ortografia	<ul style="list-style-type: none"> - Txukuntasuna: ongi - Letra: letra nahiko garbia da eta hitzen banaketak ongi egin ditu. - Marjinak: marjinak ongi zehaztuta daude. - Ortografia: 3 akats edo gehiago (<i>al, hoiuka, herrialde</i>). Gainera batzuetan txistukaria nahastu ditu (<i>gasteak, kotxes, dusu</i>). Testua luzea dela kontuan hartu behar da. - Maiuskulak : Nahiko ongi erabiltzen ditu, baina <i>Mañeru</i> txikiz idazten du beti eta askotan erabiltzen duenez, itsustu egiten du testua. <i>Nafarroa</i> ere txikiz dago. 	1
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> - Egitura: paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak banatu ditu. - Egokitasuna: Eskatzen zaizkion ia idea guztiak aipatzen ditu (<i>herrian zer egitearena falta zaio</i>), ordenan gainera. Dena den, egiten dituenak garatuta daude eta nolabait justifikatuta. Agurra garatzen du. - Erregistroa: nahiko zuzena. Agurra garatzen du. 	2
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferenteari eusten dio: Ez du gehiegi erakusten. Mañeru herriarentzako ez du ia erreferenterik erabiltzen. Erabat errepikatzen du. - Paragrafo kopurua/perpausak Paragrafo banaketa bai. Perpaus konposatuak egiten dituenean galdu egiten da. - Komunztadura: aditza eta deklinabidearen komunztadura ongi. - Puntuazioa: puntuazioa ez du zuzen erabiltzen. - Lotura: Lokailu eta antolatzaileak erabiltzen ditu. Baina errepikapenekin, puntuaziorik gabe eta esaldi luzeak eta ulertzeko gaitzak geratu zaizkio. 	1
Gramatika zuzentasuna eta hiztegi aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Aditzak: indikatiboko orainaldia. - Deklinabidea: <i>oro har ongi</i>. - Hiztegi aberastasuna: ez (<i>depende</i>) - Egituren aberastasuna: Nahiko normala. kausalak ageri dira. Esaldiren bat bukatu gabe. 	2
Guztira:		7 /13

3. adibidea

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	nire herria gares da eta nagarrian kokatuta dago.
2. paragrafo	garesen mendiak eta ibaiak...daude, herria kotxetik joan ahal zara bilbotik, garesen garesen
3. paragrafo	garesen giroa lasaia da. gauza arko egin ahal dituzta ...

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Kaixo, Asier:

Gaur nire hermitaz hitz egingo dizute nire herria
ganes ditzen da, eta nagarrian kokatuta dago.

Ganesen mendiak, ibaiak, jaiak, parkeak,
futbol zelaiak, igemilekuak, ~~eta~~ gimnasioak eta
eskolak daude. Bilbotik kotxetik etorri ahal
zama.

~~*~~ Ganesen gimna lasaia da. An jan dezakezu
jateko askotan, udan igemilekura joan,
futbolema jolastu futbol zelaietan eta parkeetan
jolastu dezakezu

agur asier

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	1
Istoriaren koherentzia eta egokitasuna	2
Kohesioa	2
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2

29. itema – Guztira

8/13

Parte	3. adibidea	0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza. (0 edo 1)	Zirriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu.	1
Txukuntasuna eta ortografia	<ul style="list-style-type: none"> - Txukuntasuna: hiru bat zirrimarra egin ditu - Letra: letra nahiko garbia da eta hitzen banaketak ongi egin ditu. - Marjinak: marjinak ongi zehaztuta daude. - Ortografia: akats ortografiko bat dago, baina testua nahiko motza da. - Maiuskulak : Nahiz eta autozuzenketa egin duen, maiuskula guztiak ez ditu jarri. Oinarrizko batzuk ahaztu zaizkio: “<i>nafarroa</i>”, “<i>asier</i>”. 	1
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> - Egitura: paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak banatu ditu. - Egokitasuna: Eskatzen zaizkion idea guztiak aipatzen ditu, ordenan gainera, baina gehiegi garatu gabe. Agurra garatzea falta zaio. - Erregistroa: nahiko zuzena. 	2
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferenteari eusten dio: Ez du gehiegi erakusten. Gares herriarentzako ez du ia erreferenterik erabiltzen, behin <i>han</i> erabiltzen du. - Paragrafo kopurua/perpausak Paragrafo banaketa bai. Perpaus sinpleak, baina badago menpekoren bat. - Komunztadura: testu sinplea, eta ez dago komunztadura egiteko aukera handirik ere; baina egiten duena ongi dago. - Puntuazioa: Puntuazioa zuzen erabiltzen du. - Lotura: Esaldi sinpleen erabilera, beraz joskeraren erabilera zuzena ikusteko ez dago gauza handirik. Ez dago antolatzailearik. Ez da faltan botatzen ere. 	2
Gramatika zulentasuna eta hiztegi aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Aditzak: ahaleraren erabilera - Deklinabidea: oro har ongi, aipatutako akats batekin. - Hiztegi aberastasuna: normala - Egituren aberastasuna: Nahiko normala. Ahalera, kausalak ageri dira. 	2
Guztira:		8 /13

4.adibidea

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	<p>- Guitguitaio. Guitguitaio - Farroko erdian dago.</p>
2. paragrafo	<p>- Mendiak, landa eremuak eta abar daude. - Kotxez, oinez oinez eta txirrindulez etorri daitezke.</p>
3. paragrafo	<p>- Lasua da eta txiki-a da. - Bertan parke bat dago eta bertan jolastu ahal da.</p>

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

Kaixo, Asier:

Mikel dut izena.

~~Guinguizano~~ Guinguiñano izen duen herri bat aurkeztuko dizut; hau da, ni bizirik naizen herria. Nafarroko herria da, eta Nafarroko erdian dago.

Mendi arkoen arko dandak inguruan, eta bakarririk, "Eparaz" duena mendi izenak dakit. Herrieta aparte landa eremuak dande. Eta kotxez joinez eta txirinduriaz etorri ahal izateke.

Lasaitza da eta txikia ere. Bertan parte bat dago, eta jolas arkoetan jolastu dezakezu.

A

Azur.

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	2
Istoriaren koherentzia eta egokitasuna	2
Kohesioa	3
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	3

29. itema – Guztira

11 / 13

Parte	4. adibidea	0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza. (0 edo 1)	Zirriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu.	1
Txukuntasuna eta ortografia	<ul style="list-style-type: none"> - Txukuntasuna: zirrimarra bat edo beste - Letra: letra trakets samarra, baina ongi ulertzen da. - Marjinak: marjinak ongi zehaztuta daude. - Ortografia: ez dago akats ortografikorik. - Maiuskulak: ez dago akatsik. 	2
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> - Egitura: paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak banatu ditu. - Egokitasuna: eskatzen zaizkion idea guztiak aipatzen ditu, ordenan gainera, baina gehiegi garatu gabe. Agurra garatzea falta zaio. - Erregistroa: nahiko zuzena. 	2
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferenteari eusten dio: Bai. Errepikapenik ez. - Paragrafo kopurua/ perpausak Paragrafo banaketa bai. Perpaus sinpleak eta menpekoak. - Komunztadura: bai, zuzena. - Puntuazioa: Puntuazioa zuzen erabiltzen du. - Lotura: Esaldi eta paragrafoen arteko lotura zuzena. Antolatzaile eta menpeko perpausen erabilera bidez. 	3
Gramatika zulentasuna eta hiztegi aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Aditzak: indikatiboa eta ahaleraren erabilera zuzena (<i>dezakezu, zaitetzke</i>) - Deklinabidea: oro har ongi. - Hiztegi aberastasuna: normala, ez dago erdarazko hitzik. - Egituren aberastasuna: Ongi. Ahalera, erlatibozkoa ageri dira. <p>Hitzen ordena zuzena, galdegaiaren erabilera zuzena. Estilo argia eta zuzena.</p>	3
Guztira:		11 /13